# Zamudio Gerra zibilean

## Zamudio en la Guerra Civil



Gerra hasi zenean, Zamudion, beste udalerri batzuetan bezala, nolabaiteko lasaitasunean bizi ziren. Gerra batzordea arduratzen zen errepideak kontrolatzeaz, elikagaiak banatzeaz, errefuxiatuak zaintzeaz, milizien antolaketaz eta armamentuaz, besteak beste. Frontea hurbildu ahala, Zamudio tropak biltzeko leku bihurtu zen (Injeniarien 10. bataioia, Santanderko 116.a, Rebelión de la Sal, Perezagua...). Gomezen agindupeko zegoan lehen dibisioa zen Berreaga eta Gaztelumendiren arteko mendilerroko defentsa lerroa okupatzen zuena. Burdin Hesia hautsi zen egunean bonbardaketak areagotu egin ziren, eta ondorioz herritar zibil, gudari eta milizianoen artean baja ugari egon ziren.

Gazteenak frontera abiatzen ikusi zituzten. Batzuk ez ziren inoiz itzuliko, Sollube, Otxandio, Elgeta bezalako fronteetan bizitza galdu baitzuten. Beste batzuk espetxeetan bukatuko zuten.

Frankistak gobernura iritsi zirenean, Zamudioko pertsona askok beren ondasunen espolioa jasan zuten, prozesu judizialei aurre egin behar izan zieten, frankistekin borroka egitera behartu zituzten, fronte urrunetan hil ziren edo "Langileen diziplina batailoietan" lan behartuak egitera bidali zituzten. Horretarako, udal gobernu berriak "Herrian eta herriko biztanleekin izandako portaeren ikerketa-batzordea" jarri zuen abian.

*Al inicio de la Guerra, en Zamudio, al igual que en otros municipios, se vivía una relativa calma. El comité de Guerra se encargaba de controlar el paso de las carreteras, el reparto de alimentos, el cuidado de los refugiados, la organización de las milicias y armamento... A medida que el frente se acercó, Zamudio se convirtió en lugar de acurtelamiento o concentración de tropas (10º de ingenieros, 116 de Santander, Rebelión de la Sal, Perezagua...). Era la primera división bajo el mando de Gómez la que ocupara las alturas fortificadas de Berreaga a Gaztelumendi. Los días de la ruptura del Cinturón de Hierro los bombardeos se intensificaron, causando numerosas bajas a la población civil, gudaris y milicianos.*

*Vivieron la partida de los más jóvenes al frente. Algunos jamás regresarían, perdiendo la vida batallas como la de Sollube, Otxandio, Elgeta... Otros acabarían encarcelados.*

*Con la llegada de los franquistas al gobierno muchas personas de Zamudio sufrieron el expolio de sus bienes, tuvieron que afrontar procesos judiciales, fueron obligados a luchar con los franquistas, murieron en frentes lejanos o fueron destinados a "Batallones disciplinarios de trabajadores" realizando trabajos forzados. Para ello el nuevo gobierno municipal puso en marcha la "Comisión investigadora de los comportamientos habidos en la localidad y con habitantes de la localidad...".*

# Bilboko Burdin Hesia

Cinturón de Hierro de Bilbao

# Zamudio

## Gamizmendi - Gaztelumendi





Memoria ibilbidea

Itinerario de la Memoria

# Irudia eta memoria

## Imágenes y memoria



*"...argitu dau burdin-txorien zeruan, ta Bizkargitik artez...sartu da Txorierrira..."*

Zamudion bonbardaketarik gehienak 1937ko ekainak 11tik 14ra bitartean eman baziren ere, 1936ko irailekoak dira lehen heriotzak, bai frontean bai bonben eraginez. Tamalez ez ziren bakarrak izan. Asko dira gerran arrazoi desberdinengatik hildako Zamudioztarrak.

*Aunque la mayoría de los bombardeos a Zamudio tuvieron lugar entre el 11-14 de junio de 1937, las primeras muertes se produjeron en septiembre de 1936, tanto en el frente como por efecto de las bombas. Lamentablemente no fueron las únicas, siendo muchos los Zamudioztarras muertos en la guerra por motivos diferentes.*

Ederra da ermita honek eskaintzen duen ikuspegia, estrategikoa. Hau dela eta gerra garaian Eusko Gudarosteko artileriak segurtasun tokia kokatu zuen hemen.

*Tan bella como estratégica es la panorámica que ofrece esta ermita. No en vano, durante la guerra, la artillería del Ejército Vasco instaló aquí su puesto de control.*






1937ko maiatzean Zamudioko alkateak Bilboko Burdin Hesian lan egiteko gai ziran 84 gizon izendatu ebazan. Zamudion guztira 61 idi eta 104 asto zenbatu ziran.

*En mayo de 1937 el alcalde de Zamudio nombró a 84 hombres aptos para trabajar en el Cinturón de Hierro de Bilbao, en el que se contabilizaron un total de 61 bueyes y 104 burros.*

*"Gerra Zibilean, umea izan arren, akordetan naz koltxoi eta ganaduak gurdian kargeta joan ginela Galdamesera"*

*"A pesar de ser niña, durante la Guerra Civil, recuerdo que cargamos colchones y ganado en el carro y marchamos a Galdames"*

# Bilboko defentsa lerroa

## Línea defensiva de Bilbao

### Garai batean... Ayer

**Bilboko Defentsa Hesia, Burdin Hesia izenez ezagunagoa, 80 km-ko luzera gainditzen zuen gotorleku lerroa zen. Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen gotorleku hori eraikitzea, Bilbo eta bere ingurua babesteko eta matxinatutako tropen aurrerakuntza ikusirik, demokrazia eta askatasuna defendatzeko.**

**Lan handi hori 14.000 pertsona baino gehiagok gauzatu zuten 1937ko udaberrira arte (horien artean zenbait emakume eta gazte), baina ez zen nahikoa izan Bilbo defendatzeko eta hesia apurtu egin zen 1937ko ekainaren 12an, Gaztelumendi eta Urrusti parean, Gamiz-Fika eta Larrabetzu artean hain zuzen ere.**

*El Cinturón Defensivo de Bilbao, más conocido con el nombre de Cinturón de Hierro, era una línea de fortificaciones de más de 80 km de longitud que el Gobierno Vasco decidió construir en 1936 para proteger Bilbao y su entorno y para defender la democracia y la libertad, frente al avance de las tropas sublevadas.*

*Aquella gran obra, que hasta la primavera de 1937 ejecutaron más de 14.000 personas- entre ellas algunas mujeres y adolescentes- no fue suficiente para defender Bilbao y el Cinturón se rompió el 12 de junio de 1937, en la zona de Gaztelumendi y Urrusti, entre Gamiz-Fika y Larrabetzu.*

### ...eta gaur ...y hoy

Araba eta Bizkaiko 33 udalerri zeharkatzen dituen defentsa lerro hau Ondasun Kulturaltzat babestuta dago 2017ko urritik, Monumentu Multzo kategorian. Gogora Institutuaren, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako eta Bizkaiko Aldundien eta 33 udalen borondatea da espazio hori berreskuratu eta Memoria ibilbidetzat balioan jartzea.

*Esta línea defensiva, que abarca 33 municipios de Álava y Bizkaia, está protegida como Bien Cultural, Con la categoría de Conjunto Monumental, desde octubre del 2017. Es voluntad del Instituto Gogora, el Gobierno Vasco, las Diputaciones de Álava y Bizkaia y los 33 ayuntamientos recuperar y poner en valor este espacio como Itinerario de la Memoria.*




# Burdin Hesia Zamudion

## El Cinturón de Hierro en Zamudio

Eraikuntza lanetarako Burdin Hesia 5 sektoretan antolatu zen eta Berreaga-Gamizmendi-Urrustiko mendilerroa 5.sektorean zegoen, Larrabetzutik hasi eta Berango, Urduliz eta Barrikaraino iristen zena.

Hau izan zen faxistek aukeratu zuten lekua Burdin Hesiaren apurketarako eta ekainaren 11-13a bitartean borroka latzak bizi izan ziren mendilerro honetan. Ekainaren 12an nazionalek Burdin Hesia apurtu eta Zamudio eta Lezamara jaitsi ziren handik Artxanda aldera jarraitzeko.

*Para su construcción, el Cinturón de Hierro estuvo dividido en 5 sectores y el cordal de Berreaga-Gamizmendi-Urrusti estaba integrado en el 5º sector, que abarcaba desde Larrabetzu hasta Berango, Urduliz y Barrika.*

*Este fue el portillo indicado por Goikoetxea, que los facistas seleccionaron para la ruptura del Cinturón de Hierro, y entre el 11 y el 13 de junio se vivieron en estos montes duros enfrentamientos. El 12 de junio los franquistas rompían el Cinturón de Hierro y descienden a Zamudio y Lezama para continuar hacia Artxanda, a las puertas de Bilbao.*

# Zamudio bi fronte artean



1937ko ekainean gerrak Zamudioko atea jo zuen. Burdin Hesia apurtzeko Gaztelumendi aukeratu izanak egun horietan Zamudioren etorkizuna aldatu zuen, herria gerra frontean kokatuz.

Burdin Hesitik tropa frankistak Zamudio eta Lezamara jaitsi eta Artxanda aldera jarraitu zuten. Fronte bien artean bizi izatea ez zen erraza izan. Jende asko herritik ihes egin behar izan zuen eta bertan geratu zirenei gerraren ankerkeria bizitzea egokitu zitzaien.

Garai hartan bizi izandakoaren Memoria berreskuratzea da orain gure helburua. Oroimenaren memoria, bizipenen memoria.

*En junio de 1937 la guerra golpeó la puerta de Zamudio. La elección de Gaztelumendi como lugar para la ruptura del Cinturón de Hierro cambió en esos días el futuro de nuestro municipio, situando a Zamudio en el frente de guerra.*

*Desde el cinturón de Hierro las tropas franquistas bajaron a Zamudio y Lezama y continuaron hacia Artxanda. Vivir entre ambos frentes no fue nada fácil. Muchas personas tuvieron que huir de Zamudio, y las que se quedaron vivieron la injusticia de la guerra. Memoria de los recuerdos, memoria de las vivencias.*

## Entre dos frentes

Bideoa










# Memoria ibilbideak
## Itinerarios de la Memoria

Memoria ibilbideei esker, seinaleztatuko ibilbideei jarraituz, iraganeko gertakari eta lekuetara joan gaitezke, oraindik ere horiek bizi izan zituzten pertsonen memorian dirautenak.

Burdin Hesiaren memoria ibilbideei esker Gerra Zibileko defentsa lerro horretara hurbil gaitezke, eta gatazka gertatutako lekuetan ibil gaitezke, gerraren injustizia sufritu zutenak gogoraraziz.

*Los Itinerarios de la Memoria permiten acercarnos, mediante recorridos señalizados, a aquellos acontecimientos y enclaves del pasado que perduran en la memoria de las personas que los vivieron.*

*Los Itinerarios de la Memoria del Cinturón de Hierro nos acercan a esta línea defensiva de la Guerra Civil y nos permiten recorrer los escenarios de la contienda y recordar a las personas que padecieron la injusticia de la guerra.*

# Zamudioko Memoria ibilbidea
## Itinerario de la Memoria de Zamudio

Hemen duzue Burdin Hesiaren Memoria Ibilbidea Zamudion. Arroetatik abiatu eta Zamudioko teknologia-parkea zeharkatu ostean apurka-apurka Berreaga-Urrusti-Gaztelumendi mendilerrora igotzen dena, aurretik San Bartolome ermita albotik igarota. Mendilerro honetan eraiki zen Burdin Hesiaren defentsa lerroa 1936-1937 urteen artean. Baso eta landaketen barrenean oraindik mantentzen dira garai hartan eraiki ziren gotorleku eta lubakiak. Ibilbideak mendigainetik tarte bat egin ostean Fullarantz jaitsiko da eta baserri, larre eta baso artean, apurka-apurka Zamudioko herri-gunera bueltatuko da.

Mendi ibilbidea *Recorrido montañero* — 11,1 km — 310 m



*Os presentamos el Itinerario de la Memoria del Cinturón de Hierro en Zamudio. Partiendo desde el aparcamiento de Arroeta y atravesando el Parque Tecnológico de Zamudio, se asciende poco a poco al cordal de Berreaga-Urrusti-Gaztelumendi, pasando antes por la ermita de San Bartolome. En esta cordillera se construyó entre 1936-1937 la línea defensiva del Cinturón de Hierro. Entre bosques y plantaciones aún se conservan las estructuras y trincheras que se construyeron en aquella época. Tras un recorrido por por lo más alto, el recorrido desciende hacia Fulla y, entre caseríos, pastos y bosques, regresa poco a poco al núcleo urbano de Zamudio.*

# George Steer
## Gernikan gertatutakoa baino askoz gehiago munduan zabaldu zuen kronista
## El periodista que contó al mundo algo más que la tragedia de Gernika.



George L. Steer, Gernikako bonbardaketako kronikagatik mundu mailan ezaguna egin zen, 1937ko apirilaren 28an The Times eta New York Times egunkarietan argitaratu zena. Baina hori baino askoz gehiago egin zuen eta 1938an The Tree Of Guernica. A filed study of modern war liburua idatzi zuen. Liburu horretan, besteak beste, azken hilabeteetako fronteetako kronikak biltzen dira. Horien artean ditugu ekainaren 11 eta 13a bitartean Zamudio, Lezama, Gamiz-Fika eta Larrabetzu hauetan bizi izandakoa, Burdin Hesiaren apurketari dagokiona.

*George L. Steer, conocido mundialmente por su crónica sobre el bombardeo de Gernika, publicada el 28 de abril de 1937 en The Times y New York Times, hizo mucho más que redactar aquella famosa crónica. En 1938 escribió el libro The Tree of Guernica, a filed study of modern war. En ese libro se recogen, entre otras cosas, las crónicas de los frentes de los últimos meses. Entre ellos se encuentra lo vivido entre el 11 y el 13 de junio en Zamudio, Lezama, Gamiz-Fika y Larrabetzu, correspondiente a la ruptura del Cinturón de Hierro.*

*"Prismatikoen bitartez egindako begirada batek egiaztatu zidan haranak bizia hartzen zuela. Beste aldeko bi metrailadoreek gogor egin zioten tiro Zamudioko herriari... "*

*"Gerezi gozoak hartzeko gelditu ginen, goiz hartan bertan eroritako bonba-kraterrez betetako baratze batean"*

*"Una ojeada a través de los prismáticos me hizo constatar que el valle parecía cobrar vida. Las 2 ametralladoras del otro lado dispararon con dureza contra el pueblo de Zamudio..."*

*"Nos detuvimos para coger sabrosas cerezas en un huerto lleno de cráteres de bombas caídas aquella misma mañana"*

GUDA - ZAINGOA
Departamento de Defensa

# 1937-06-12
## Burdin Hesia gainditu zuten eguna
## El día que rompieron la defensa

Ekainak 11a. Bilboren kontrako erasoaldia hasten da. Egun horretan bertan, armada faxistak Bizkargi mendia hartu zuen, eta, ondoren, Urkullura ailegatzea lortu zuten, Burdin Hesiaren atarian kokatuz.

Ekainaren 12an, indar nazionalek 110 hegazkin, 200 artilleria pieza eta 12.000 soldadu inguru bidali zituzten eremu horretara, euskal indarrak errukirik gabe zigortuz.

Ekainaren 13an tropak Zamudion sartu ziren.

Bonbardaketak ekaineko egun haietan indartu ziren, gure udalerriko bizilagun batzuk hil edota zaurituz.

*11 de junio. Se inicia la ofensiva sobre Bilbao. Ese mismo día el ejercito fascista alcanza la cota de Bizkargi y posteriormente la de Urkullu, posicionándose a las puertas del Cinturón de Hierro.*

*El 12 de junio las fuerzas nacionales destinaron a esta zona 110 aviones, 200 piezas de artillería y unos 12.000 soldados, castigando sin piedad a las fuerzas vascas.*

*El 13 de junio las tropas entraban en Zamudio.*

*Los bombardeos se intesificaron estos días de junio y algunas vecinos y vecinas de nuestro municipio perdieron la vida o resultaron heridas.*


064 94

MINISTERIO DE MARINA Y AIRE

TELEGRAMA CIFRADO

Recibido a las 17 h. 20.

Excmo. Sr. Ministro de Defensa Nacional.

Se ha recibido un telegrama que descifrado dice:

Remitente: Presidente Gobierno Vasco.

Destinatario: Ministro Defensa Nacional.

Fecha: 13 junio 1937 a las 14 h. 15.

Lugar: Bilbao.

Texto: Resistencia hácese imposible. Enemigo entrado Zamudio dirígese cerrar puerto, envolviendo cinturón. No hay tropas. UNica solución hoy mismo preséntese aviación en masa, caso contrario no respondemos caída Bilbao plazo de horas. Gobierno reunido con General. Contesten urgentísimo.

Valencia, 13 de junio de 1937.

ESTADO MAYOR DE MARINA – GABINETE DE CIFRA

Lehendakari Agirrek ekainaren 13an bidalitako telegrama zifratua, Burdin Hesiaren defentsaren egoerari buruzkoa.

*Telegrama cifrado remitido el 13 de junio por Lehendakari Agirre sobre la situación de la defensa en el cinturón de Hierro.*

Gure lurraldean Gerra Zibileko gertakariak bizi behar izan zituzten pertsonen omenez. Bilboko Burdin Hesiaren eraikitze lanetan parte hartu, bertan borrokatu eta lurralde honetan beraien bizitza zein gehien maite zituzten pertsonena babesteko leku bat bilatu zutenen omenez.

Memoria ibilbideak
Itinerarios de la Memoria

En memoria de aquellas personas que sufrieron los acontecimientos de la Guerra Civil, aquellas que participaron en la construcción del Cinturón de Hierro de Bilbao y en su defensa, así como las que buscaron en su interior un lugar donde proteger su vida y la de sus seres queridos.

Memoria ibilbideak – Itinerarios de la Memoria – Gogora
MONUMENTU MULTZOA Euskal Kultura Ondarea – CONJUNTO MONUMENTAL Patrimonio Cultural Vasco
EUSKO JAURLARITZA – GOBIERNO VASCO
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Zamudio Udala